

## **Aberriak zenbat?**

*Euskaldunon Egunkaria*, 1996-09-08: 3.

Eusko Alkartasunaren urtebetetzea dela eta, pilota partiduan ari bagina bezala hasi gara kontatzen: "EAK 10", eta berez datorkit proportzioaren bigarren zatia: "Aberriak, zenbat?". Ez naiz hamarreko txipia gutxiesten ari, hamar hauek neronenak bezala ere sentitzen baititut; ezta gutxia gutxiesten dudana, gure herriko pilota partidu honen garrantzia azpimarra nahi nuke, aldiz. Ez dut mendea bete duen handia demagogikoki laidatu nahi ere, bestalde. Apustulariak gara euskaldunon, bistan da, baina ez dakit zein helbururekin. Sei mila urteko hizkuntzan hizketan irauten duenaren izpiritua gogoan dugula ala arnas labur eta jeniotsuaren grinarekin. Zatiketan nor arrazoi?. Ez da etorkizunerako egin genezakeen galderarik bizkorrena. Gauza batez ohartu naiz aspaldi, politikan ez duela arrazoiak handikien edo zalapartatsuen agertzen dituenak beti irabazten, ezta ere, pilota jokoan bezala, arrazoiaren adizio eta kenketa bateko emaitza zuzenak ere; hauez gain badirela herriak politikan sumatzen dituen egibide, txukuntasun eta ausartia arriskatzen dituenaren berrikuntzak. Herriak ere maite du trabesa, baina ez du galtzen gizabidearen zentzua, eta galdetuko du ganoraz behin eta berriz oinarrizko etekina: "Aberriak, zenbat?".